

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekin izango duen harremana funtsezkoa da haiek erakartzeko eta kopurua hazi arazteko. Haiekin harremanetan jartzeko webgunea zein lokal fisikoa edukiko dugu, bezeroek erosoan egiten zaien moduan eskaera egiteko aukera izan dezaten. Harreman mota horiek anitzak izago dira; laguntza pertsonala, laguntza pertsonal eskainia, autozerbitzua eta zerbitzu automatizatua ain zuzen ere.

Alde batetik laguntza pertsonala emango dugu, aurrez aurre edo online, aholkuak emango ditugulako, arazoak badituzte konpontzen saiatuko garelako, eta proposamen batzuk ere emango ditugulako (bidaiaren inguruan esaterako).

Bestalde, laguntza pertsonal eskainia ere gure enpresak bezeroekin izango duen beste harreman mota bat da, kontsultore espezializatua edukiko dugulako bidaia konplexuetarako.

Horrez gain, autozerbitzua. Gure webgunearen bidez bezeroari aukera emango baitiogu, hala nola, erreserbak egiteko eta fakturak deskargatzeko.

Gainera, bezeroek ezezaguna izango den helmuga edukiko dutenez, guk 24h-ko arreta pertsonala ziurtatuko diegu haiek seguru sentitzeko eta edozein momentutan zalantza edo arazoren bat izango balute une horretan bertan erantzun eta laguntzeko.

Azkenik, zerbitzu automatizatu bat ere edukiko dugu. Zehazki, bezeroak erreserba egiten duenean gure lineako chatbot erantzuna.